

EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

448/2014 EBAZPENA, apirilaren 10koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Jon Guajardo Remacha jauna Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari Gerentea izendatu eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko duena.

Aztertua izan da Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari Gerentelari postua betetzeko deialdia. Deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen 2014ko urtarrilaren 31ko 157/2014 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2014ko otsailaren 27ko EHAA (40. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarra aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita haien baldintza profesionalak <<curriculum vitae>>-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Jon Guajardo Remacha jauna deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela ikusi da.

Jon Guajardo Remacha jauna, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Arabako Unibertsitate Ospitaleko Kudeaketa Sanitarioko Unitateko Fakultatibo Espezialista Mediku lanpostu funtzionalaren 1252 plazaren jabea dena, Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari Gerente lanpostua betetzeko hautatua izan da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetza langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori dela eta, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBATZI DU:


Lehenengoa.- Jon Guajardo Remachajauna Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuko Zuzendari Gerentea izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek interesdunari jakinarazten zaion egunetik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.- Jon Guajardo Remacha jauna zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 10a.

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIA**JON ETXEBERRIA CRUZ**
Osakidetza
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR GENERAL**EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCOOSASUN ETA KONSUMO
SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO